

Ezkerraren ezkerrez. The left wing of the left



IMANOL SATRUSTEGI ANDRES

(UPV-EHUⁿ Historiako Gradua. UABⁿ Historia Garaikide Masterra.
UPNA-NUPen Doktoregaia)

60 eta 70 hamarkadetan ordura arteko alderdi komunista tradizioaletatik baino ezkerreago kokatzen ziren alderdi iraultzaileak sortu eta ugaritu ziren. Alderdi hauei, «ezker erradikal», «ezker iraultzaile» edo «muturreko ezker» definizioa ezarri zitzaion.¹ Garaian dinamismo handia zuten alderdiak izan arren, hainbat hamarkaden ondoren, gizartearen memoria kolektiboan horietatik guztietatik deus gutxi baino ez da geratzen.

Sektore politiko hau osatzen zuten alderdi guztien batura, frankismoaren aurkako bigarren indarra zen, Partido Comunista de España eta Partit Socialista Unificat de Catalunyaⁿ (PCE-PSUC) nagusigoaren atzetik.² Kalkuluen arabera 25.000 eta 30.000 kide bitarte izatera iritsi bide ziren.³ Baina haien inguruan egin izan diren ikerketak, orain dela urte gutxi batzuetara arte behinik behin, urriak eta aurreiritziz beteak izan dira, topikoz josirik. Besteak beste Jose Manuel Rocaren eta Consuelo Laizen lanez ari gara.⁴ Azken urteetan ordea, ikergaiak merezi zuen garrantzia itzuli dioten lanak eta ekimenak ugaritzen ari dira. Azpimarragarrienak Gonzalo Whilhelmik orain dela gutxi kaleratu duen eskuliburua eta 2017ko otsailean Madrilen egindako kongresua ditugu.⁵ Gainera, heldu diren urteetan gaia argituko duten lan gehiago etorriko direlako aurreikuspena dago.

Sektore politiko honek berebiziko garrantzia izan zuen Hego Euskal Herrian. Espainiar estatuko mailan Hego Euskal Herriko probintzietan izan baitzuen ezker erradikalak presentzia handien. Oposizio antifrankistaren eta langile mugimenduaⁿ jaun eta jabe izan ziren, Espainiako beste toki batzuetan gertatu ez zen bezala. Frankismoaren azkeneko urteetan diktadura eraisteko beharrezkoak izan ziren mobilizazioetan presio ahalmen handia izan zuten eta haien ekarpena erabakigarria izan zen.

1. Sorrera eta ezaugarri nagusiak

Europa mendebaldean, 60 hamarkadan astinaldi iraultzaile handia bizi izan zen, korrante politiko-ideologiko erradikalaren sorrera ahalbidetu zuena. Izan ere, Gerra

Hotzaren garai betean, herrialde industrializatueta aldaketa sozial sakon eta iraultzaileak gertatzeko aukera hurbil ikusten zen, bi eredu ekonomiko nagusi (kapitalismoa eta sozialismo erreala) lehia bizian baitzeuden.

Aldi berean, hainbat faktore ekonomikok egoera baldintzatu zuten. «Kapitalismoaren Urrezko Aroa» deitu zena bizitzen ari zen, eta hazkunde ekonomikoak eta, bereziki, langileen presioak «Ongizate Estatuaren» eraikuntza ahalbidetu zuten. Espainian ordea, bere diktadura izaeragatik eta ekonomiaren atzerapenagatik, Ongizate Estatuak ez zen beste tokietan bezainbeste orokortzen ari. Baina 1959eko Egonkortze Planetik aurrera, herrialdeak industrializazio garai sakon bat bizi zuen, landako biztanle askoren exodoa behartuz. Hirietara lantegi berrietan lan egiteko prest zeterren proletarigoaren uholde gazte bat ekarri zuen. Langile gazte hauek guztiek osatu zuten frankismoaren aurkako oposizio berria.

Hazkunde ekonomiko erraldoi horrek kapital masa handi baten metaketa ahalbidetu zuen. Gainera, ezin dugu ahaztu diktaduraren izaera klasista, sasifaxista eta antikomunista. Frankismoak langileentzako proiektu politiko zehatz bat zuen ezarriarik. Lan arloko legedia frankista eta autoritarioen helburua, ekoizpena handitzea eta metaketa kapitalista babestea zen, langileen kalterako. Langileak kontrolatzeko Sindikatu Bertikala deitzen zen erakunde antidemokratikoan txertatu egiten zituzten, non estatuak zein enpresa-jabeek handik kontrolatzen baitzituzten.⁶

Ezker iraultzaileak gizarte sektore oso zehatzetan izan zuen eragina: hirietako langileen artean eta unibertsitateetako ikasleen artean. Unibertsitateetan kideetako batzuen familien jatorri soziala klase ertain edo altukoa zen. Hori zela eta, askotan alderdi hauetako militantzia «behin-behineko gaztetako abentura errebelde» modura kontsideratu izan da. Baina hori aurreiritzi bat baino ez dela esan daiteke, izan ere, alderdi hauen kideen gehiengoa langile auzoetatik baitzeterren. Alderdi hauen guztien borroka eta eragin esparru nagusia langile mugimendua zen, aldaketa sozialerako indar nagusiaren papera langile klaseak jokatuko zuelako konfiantza osoa baitzuten. Horregatik, ikasle jatorriko kide askok euren burua kontzienteki «proletarizatzen» ohi zuten, esan nahi baita, aurreko bizitza guziaz atzean utzi, langile auzoetara bizitzera joan eta industria sektoreko fabriketan soldatapeko ohiko lanak bilatzen zituzten, langileria antolatze eta borroka martxan jartzeko asmoz. Hori xe izaten zen euren alderdiak zabaltzeko eta ezagutzera emateko bide nagusiak.

Bestalde, kideen %30 inguru emakumeek osatzen zuten, zuzendaritza karguetan haien errepresentazioa askoz ere txikiagoa zen arren.

Ezker erradikaleko mugimenduek «Ezker Berria» deiturikoaren eragina izan zuten. Esan dugun bezala, komunismo klasikoa baino ezkererago kokatu ziren. Izan ere, alderdi sozialdemokrata eta komunista klasikoek iraultzari uko egin eta sistema liberal-burgesean txertatu zirela uste baitzuten. Desestalinizazioak, mugimendu antikolonialistek, eta Txina, Vietnam, Kuba eta Argeliako iraultzen eraginak militanteen gogoak busti zituen, eta gogorki astindu ere.

Espainian, eta Hego Euskal Herrian, ezker iraultzaileak lau jatorri nagusi izan zituen: Euskadi Ta Askatasunaren (ETA) zatiketa obrerista edo ezkertiarrek, PCE-PSUCen ezkerretiko zatiketak, Frente de Liberación Popular (FLP)⁷ izeneko frontearen disoluzioaz geroztik sorturiko talde anitzak, eta azkenik, erradikalizatutako sektore kristauak. Lau jatorri hauek, bistan denez, sortzez arrunt ezberdinak ziren, baina haien arteko hurbilketa joera bat egon zen.

Ezker erradikaleko alderdi guztietan ezaugarri berbera betetzen zen: kideen gaztetasuna. Politika arloan gertatu zen belaunaldi jauzi bat izan zen. Gazteenek, Gerra Zibila (Europako kasuan Bigarren Mundu Gerra) bizi ez zutenek alegia, gurasoen belaunaldiarekin zuten lotura apurto eta haien politika egiteko metodoak baztertu zituzten.

Ziurrenik kideen gaztetasunak lagunduta, alderdi horietan guztietan ohikoa izaten zen hiperaktibismoa ezagun egin zen. Kideek konpromiso maila altua zuten euren alderdiarekiko eta euren ekinbide politikoaz bizitzaren arlo guztiak politizatzeko joera zuten, etengabe eta uneoro jardun politikoari zuten onena eskainiz.

Belaunaldi-jauzi politikoaz gain, gizarte eta kultura arloko jauzia ere gertatu zen: balore moral eta etikoetan, moda eta janzeran, musikan (pop-rocka edo protesta bakarlariak kasu), sexualitatea ulertzeko moduan... Espainian ere jauzi hura gertatu egin zen, baina diktadura egoeragatik, beranduxeago eta oso baldintzaturik ailegatu zen.

Ezin dezakegu ahaztu Euskal Herrian «Bigarren Euskal Pizkundea» loratu zuten hamarkadak izan zirela. Besteak beste, Euskara Batuaren sorrera, Euskal Kantagintza Berria eta euskal idazle eta artista plastikoen belaunaldi berri bat zor dizkiegu garai hari.

Alderdi eta talde erradikal hauen gehientsuenen oinarri ideologiko eta doktrinala kontzeptu leninista berberetan oinarriturik zegoen: frankismoaren aurkako borrokaren izaera antikapitalista, iraultza sozialista gizarte eraldaketarako bide bezala, langile-boterearen eraketaren beharra, abangoardiazko alderdiaren bidezko antolaketak, «demokrazia burgesaren» aurkako iritzia eta antinperialismoa.⁸

Gehienek erreferente ideologiko berdinak zituzten (Marx, Engels, Lenin...), baina ñabarduren arabera bestelako ekarpenei ere garrantzi handia ematen zitzairen: Trotsky, Mao Tse-Tung, Antonio Gramsci, Frantz Fanon, Rosa Luxemburgo, André Gorz, Ernest Mandel, Louis Althusser... Ondorioz, oso antzekoak ziren oinarriak eduki arren, ikuspuntu ezberdin ugari zegoen eta espazio politiko mehar eta txiki berean zatiketa handia zegoen. Zatiketek alderdi hauei oso sektario eta alderdikoi izatearen fama ezarri zieten.

Belaunaldi honek, jakin-min handia zuen. Zentsura frankistak jartzen zituen zailtasunak zailtasun, konpromisodun militanteen artean hainbat autore marxisten zenbait lan mugitzen zen, gehienak atzerrian inprimaturikoak. Debekaturik egoteagatik lan horiek izugarri erakargarriak egiten zitzaizkien. Talde politikoen

orientazioa, sarri, haien eskuetara ailegatzen ziren irakurketen arabera aldatuz joan zitekeen. Liburu edo korronte berriek, eztabaida berriak pizten zituzten, eta alderdiak ordura arte eduki zuen iritzia aldarazi zezaketen.

Pariseko 1968ko maiatzeko iskanbilen ondorioz, eta urte bereko Txekoslabiako inbasioa zela eta, alderdi hauek guztiak Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunari (SESB) babesa ematek aldendu ziren. Ordurako, Txinan gertatzen ari zenaren oihartzuna ailegatu zen. Askok, maoismoarengan ikusi zuten garaiko sozialismo zientifiko berriaren benetako aldaera eta SESBen akatsak zuzentzeko bidea horixe izanzen zela uste zuten. Ondorioz, alderdi hauetako asko (baina ez guztiak) maoismoaren aldaera ezberdinak onartu zituzten. Maoismoa izan zen gazteen arteko modazko ideologia.

Bestalde, kontuan hartzekoa da Ezker Berriak ekarritako berrikuntza ideologikoak, beste abertzaletasun berri baten sorrera ere ekarri zuela: Eusko Alderdi Jeltzalearen abertzaletasun kontserbadorearengandik aldenduta ETA sortu zenean Ezker Abertzalea azaleratu egin zen. Abertzaletasun iraultzaile berri hau, erreferente ideologiko antikolonialista (Mao, Fanon, Castro, Che...) eta iraultzaileek eraginda eratu zen. Lehendabiziko urteetan, erakunde berriaren kokapen ideologikoa mamitu ahala, eztabaida bizia piztu zen behin eta berriz. ETAk bere burua ezkerrekotzat eta iraultzailetzat zuen eta aldi berean erakunde abertzale eta independentistatzat. Baina bere barrenean auzi sozialari (euren burua marxista edo komunista izendatuz) pisu handiena ematen ziotenen eta auzi nazionalari pisu gehiago ematen ziotenen arteko zatiketa gertatzen zen etengabe. Normalean sektore «gorri» eta «obreristenek» abertzaleak «burges ttipi, erreformista eta txobinistatzat» hartzen zituzten, abertzaleek, aldiz, gorriei «españolista» eta «traidore» izatea leporatzen zieten. Eztabaida hauek, kanporaketa eta zatiketekin bukatzen ziren sarri. Hauetatik bik ezker erradikaleko bi alderdiren sorrera ekarri zuten: Movimiento Comunista de España-Euskadiko Mugimendu Komunista (MCE-EMK) eta Liga Komunista Revolucionaria-Liga Komunista Iraultzailea (LCR-LKI). Baina hauetaz beranduxeago hitz eginen dugu.

2. Alderdiak

Garai hartako alderdiez hitz egiterakoan, oso maiz bakoitzaren jatorria azaltzeko zuhaitz taxonomikoak eta ideologiaren araberako talde edo familiak (maoistak, trotskistak, kontsejistak...) egin izan dira. Lagungarria izan daitezkeen arren, ez da komeni horrelakoak gehiegi baliatzea, alderdietako bakoitzak bere izaera propioa baitzuen. Jarraian, garaiko alderdi nagusien historiaren eta nolakotasunaren laburpen bana dator.⁹

2.1. PCEi-PTE

Partido Comunista de España (internacional) (PCEi), PSUCen zatiketa batetik sortu zen.¹⁰ 1975 urtera bitarte izen horixe mantendu zuen PCE originalaz ezberdintzeko, Partido del Trabajo de España (PTE) izena hartu zuen arte.

Alderdia eratu zuen zatiketa 1967an gertatu zen Bartzelonako zenbait ikaslek eta langile gaztek zuzenduta, *Unidad* izeneko aldezkararen baten inguruan elkartu zirenak. Zati-tutako taldearen beste kide batzuek 1968an Bandera Roja eratu zuten.

PCEi alderdi txinozalea zela esaten zen arren, batez ere alderdi marxista-leninista eta estalinista zen.¹¹ Pixkanaka beste toki batzuetara zabalduz joan zen eta Espainia-ko ezker erradikaleko alderdi handiena bilakatu zen, nahiz eta Hego Euskal Herrian beste alderdi batzuek oihartzun handiagoa lortu zuten. Bere eragin gune nagusiak Katalunia eta Andaluziako hiriak eta landa-guneak izan ziren.

Hasiera ezegonkorra izan zen. 1969 eta 1971 artean Kataluniatik atera eta estatuko beste toki batzuetara zabaldu zen. Poliziaren sarekadek behin baino gehiagotan harrapatuta, hazkunde txikia izan zuen hasierako urte hauetan, eta 1972an zuzendaritza berritzera beharturik geratu zen alderdia. Berrikuntza hura 1973ko Kongresu Eratzailean gertatu zen, zeinean alderdiaren Idazkari Nagusia izendatu baitzuten: Eladio García Castro. Kongresu hartan CCOOra (Comisiones Obreras, Langile Komisioak) itzultzea erabaki zen, alde zurretik, 1968an hain zuzen ere, sindikatu hartan parte hartzeari utzi baitzioten. Emakume, gazte, nekazari zein militarren eskakizunak defendatzeko mugimendu eta elkarteak eratzen saiatu ziren, kolektibo hauetan eragiteko asmoz.

1973an Kataluniako Asanbladan¹² sartu ziren, zeina frankismo garaiko erakunde unitarioa baitzen. 1974an Junta Democrática de España-n (JDE, *Junta*) sartzeko eskaera egin zuten eta 1975ean eskuratu zuten, PCEk jarritako baldintza betetzera-koan (izena aldatzea alegia).

1976an CCOO sindikatuaren Bartzelonako Asanbladan erabaki garrantzitsu bat hartu behar izan zen: diktadura eta gero, CCOOk izan zuen izaera sindikalaren ingurukoa. PCEk defendatzen zuen sindikatu eredu ezker erradikaleko kideek defendatzen zutenaren aurrean garaile atera zen. Azkenean, PTEko kideek CCOOtik atera eta Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores (CSUT) eratzea erabaki zuten.

Bere militante gazteen sekzioak Joven Guardia Roja de España (JGRE) izena zuten. Andaluzian Sindicato de Obreros del Campo (SOC) izeneko sindikatu nekazaria eratu zuten, ibilbide luzeko sindikatua, gaur egungo SATen (Sindicato Andaluz de Trabajadores) sorreran dagoena. PTE 1977ko lehendabiziko hauteskundeetan Frente Democrático de Izquierdas (FDI) izenez aurkeztu zen (Katalunian izan ezik, han Esquerra Republicana de Catalunyaarekin batera Esquerra de Catalunya eratu baitzuten). 1978ko Konstituzio-erreferendumean «Baiezko kritikoa» eskatu zuten, Hego Euskal Herrian izan ezik, abstentzioa eskatu baitzuten.

1979ko hauteskundeetan zenbait eserleku lortzea espero zuten. Baina bat ere eskuratu ez zuten alderdia krisian murgildu zen. Oinarriko militanteek urte luzez eskatuta, ORTrekin fusioa burutu egin zen, PT (Partido de los Trabajadores) sortuz. Fusio hau, ordea, oso azkar eta zuzendaritzen arteko akordio modura egin zenez

(oinarrien parte hartzerik gabe), ez zuen arrakasta handirik izan eta ez zen sekula egiazko batuketa bat izan. Alderdia formalki 1980 urtean desegin zen.

2.2. ORT

Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT) jatorri kristaua zuen alderdi maoista izan zen.¹³

Alderdi honen sorrera Acción Sindical de Trabajadores (AST) sindikatu kristauri zor zaio. 60 hamarkadatik zenbait elkarte kristauk –besteak beste: Hermanada Obrera de Acción Católica (HOAC), Juventud Obrera Católica (JOC), edo jatorri jesuita zuten Vanguardia Obrera Joven (VOJ) eta Vanguardia Obrera Social (VOS) bezalakoek–, langileak ebanjelizatzeke ekimenak burutu zituzten, langileen auzoetan murgilduz. Proletalgoarekin kontaktu zuzena izanagatik eta Vatikanoko II Kontzilioaren eraginez, elkarte kristauekako kideok kezka soziala bere egin zuten ustekabeen. AST 1964an sortu zen eta sindikatuak Madriletik, Andaluziara, Nafarroara eta Kataluniara hedatu zen. CCOOren sorreran parte hartu zuen elkarrekin bat izan zen, PCEekin batera.

Lan gatazken dimentsio politikoak konturatuta, sindikatuak alderdi politiko bihurtzeko erabakia hartu zuten, eta modu hartara ORT eratu zen. Handik gutxira, 1971ean, ikasle talde bat sartu zen alderdian eta hauen ekimenez alderdiak marxismo-leninismoa, bere korrante maoistan, bereganatu zuen. Ikasle hauen artean, José Sanroma (ezizenez Camarada Intsausti) zuzendari historikoa zegoen. Prozesu honetan, zenbaitek ez zuten ideologia politiko hura onartu eta Kataluniako kide gehienek alderdia utzi zuten.

Jatorri kristaua izanagatik, oso alderdi ortodoxoa izatearen fama izan zuen, planteamendu politikoetan zurruneziak omen zirelako. Oso alderdi zentralizatua zen eta zuzendaritzaren erabakiek pisu handia zuten.

PCEekin oso etsaituta zegoen, eta etengabeko kritikak egiten zizkieten, Carrilloren alderdia errebisionismoan eta erreformismoan erori zelakoan. ORTk Sindikatu Bertikalerako hauteskundeetan boikota eskatzen zuen, PCEk hauetan parte hartzea defendatzen zuen bitartean, carrillozaleek borrokarako zirrikitu legal guztiak aprobetxatu behar zirela uste baitzuten.

Alderdia oso goiz ezarri zen Nafarroan, eta ondorioz, langile mugimenduaren hegemonia izan zuen, oposizio antifrankistako buru izan zelarik. Alderdi erradikal honek probintzia hain kontserbadorean hainbesteko arrakasta izateak ezustekoa sortu zuen.

Frankismoaren bukaerako urteetan, Euskal Herriko Langile Komizioetan zatiketa bat izan zen: PCEk kontrolatzen zituen komizioek sortu zuten Comisión Obrera Nacional de Euskadi (CONE) eta ezker iraultzaileak (ORT, MCE eta LCR-ETA VI) kontrolatzen zituztenen artean Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras (CECO). ORT CECOko kidea zen eta 1974ko abenduko Hego Euskal Herriko greba orokor arrakastatsuen bultzatzaileetako bat izan zen.

Plataforma de Convergencia Democrática (PCD, *Plataforma*) eta Coordinación Democrática (CD, *Platajunta*) oposizioko erakunde unitarioetan parte hartu zuen, nahiz eta ez zen sekula batere gustura sentitu eta biak utzi egin zituen. Unión de Juventudes Maoistas (UJM) zen alderdiaren gazte sekzioaren izena.

PTEk bezalaxe, 1976ko Bartzelonako asanblada gatazkatsua onduz, CCOO utzi eta Sindicato Unitario (SU) sindikatua eratu zuten, orokorrean arrakasta gutxi izan zuena (Nafarroan izan ezik). Lehendabiziko hauteskundeetan Agrupación Electoral de Trabajadores (AET) izenpean aurkeztu zen.

Frankismoaren bukaera adostua gaitzetsi zuen arren eta hausturaren alde egin zuen arren, Konstituzioaren baiezko bozka kritikoa eskatu zuen 1978ko erreferendumean.

PTEk bezalaxe hauteskundeetan konfiantza handia jarriarik zuten, baina kanpaina ordaintzeko alderdikide asko pertsonalki zorpetu ziren arren, emaitzak ez ziren espero zirenak izan. Atsekabe hark, arestian aipaturiko PTE eta ORTren arteko fusioa behartu zuen.

Alderdia disolbatzerakoan, ORTko kide asko PSOEn integratu eta kargu garrantzitsuak eskuratu zituzten, baina beste askok militantzia politikoa utzi zuten. Azpimarragarria da bestalde, Nafarroako kideen artean, talde handi batek Herri Batasunara (HB) joateko erabakia hartu izana.

2.3. MCE-EMK

Esan dugun bezalaxe, MCEk (Movimiento Comunista de España – Euskadiko Mugimendu Komunista) ETArekin 1966ko zatiketa ezkertiar batean du jatorria.¹⁴ Lehendabiziko urteetan, izen ezberdinak izan zituen (ETA-Berri, Komunistak, Movimiento Comunista Vasco...). 1970ean maoismorantz hurbildu zen, eta koherentzia leninistari jarraiki, estatu osorako alderdi bat eratzeari ekin zion, batez ere beste eskualde batzuetako taldeekin eginiko batuketa prozesuen bidez. 1972an Zaragozako Organización Comunista de Zaragoza-rekin elkartzuz hartu zuen MCE izena, eta handik aurrera Valentzia, Madril, Asturias edo Galiziako beste taldekak maoistekin elkartzuz joan zen.

Eragin maoista eta antikolonialistak zirela eta Espainia Estatu Batuen kolonia bihurtu zela zeritzoten (yanki-frankismo izenez deitzen zuten diktadura) eta Espainiaren «independentzia nazionala» berreskuratzeko helburua zuten. 1974tik aurrera, ordea, maoismoaren aldeko apustua apalduz joan zen. MCEk CCOOren barrenean parte hartu zuen, ORTk bezalaxe, PCErekin lehiatuz.

1976an bere izenetik Espainiako «E»a kendu egin zuten, nazionalitate bakoitzean tokiko izena hartuz (Moviment Comunista de Catalunya, Moviment Comunista del País Valencià, Euskadiko Mugimendu Komunista...). CCOOren barrenean bizi izan zen eztabaidaren harira, bai MCEk bai LCRk, biek CCOOren barrenean lanean jarraitzea erabaki zuten, probintzia gehienetan (Nafarroa bezalako tokietan salbu) gutxiengoan zeuden arren. CCOOetan «Ezkerreko Korrante Sindikala» eratu zuten.

1977ko hauteskundeetan lurraldeetako bakoitzean, hautagaitza ezberdinen bidez aurkeztu zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Euskal Iraultzarako Alderdiarekin (EIA) batera Euskadiko Ezkerra (EE) koalizioa aurkeztu zuten, Onaindia diputatu eta Bandres senatari (biak EIAkoak) atera zirelarik. Nafarroan Unión Navarra de Izquierdas (UNAI) eratu zuten eta eserlekua eskuratzeko 500 boto eskasetara geratu zen.

1978ko erreferendumean abstentzioa eskatu zuen, eta handik gutxira Organización de Izquierda Comunista (OIC) alderdiaren zati handi bat batu egin zitzaion.

1980ko hamarkadaren hasieran, egoera berriari moldatzen jakin zuen eta estatuen kontrola eskuratzeko prest zegoen alderdi leninista klasikoa izateari utzi zion, mugimendu sozial berriak sustatzen trebatu zen erakunde anitz batean bihurtzeko. Horri esker ez desagertzea lortu zuen eta zenbait urte gehiago iraun zuen, ORTk edo PTEk ez bezalaxe.

Urte luzez, EMKk zein LKIk, ezker abertzalearenganako hurbiltasuna erakutsi zuten eta sarritan HBretzako bozka eskatu zuten.

90 hamarkadaren hasieran, ekialdeko blokearen krisiaren garaian, LKIk fusio saiakera bat izan zen, Izquierda Alternativa alderdia sortzeko. Baina Espainiako eskualde gehienetan fusioak huts egin eta berehala desegin zen. Batuketa horrek Euskal Herrian baino ez zuen jarraipenik izan, Batzarre eta Zutik alderdietan.

2.4. LCR-LKI

Liga Comunsita Revolucionaria edo Liga Komunista Iraultzailea (LCR-LKI) Espainiako alderdi troskista nagusia izan zen.¹⁵ Alderdiaren sorrera IV Internazionalerako Idazkaritza Batuak eta Frantziako Ligue Comuniste alderdiak bultzatutako bi talderen arteko batasunean dago: alde batetik, 1969an FLP-FOC-ESBA fronteengandik bereizitako talde bat (*Comunismo* aldizkariaren inguruan biltzen zena), eta bestetik, 1970ean ETA VI asanblada izeneko ETArekin adar ezkertiarra. Alderdi berriak LCR-ETA VI izena zuen. MCEk ez bezala, alderdiak ETArekin izena gorde egin zuen zenbait urtez, erakunde horren legitimotasuna euren gain zegoela defendatzeko. Lehendabiziko urteetan Liga Komunista izeneko zatiketa bat bizi izan zuten, 1978an berradiskidetu eta jatorrizko alderdira itzuli egin zena.

Alderdiak barne demokraziagatik etengabeko kezka zuen. Estalinismoa arbuia-tzen zuten eta ezker erradikaleko alderdi demokratikoena izateaz harro zeuden.

Hego Euskal Herria azpimarratzeko presentzia zuten. Bizkaian, hainbat zonaldeetan presente bazeuden ere, frankismo garaian, Durangaldea zen haien eskualde nagusia. Gipuzkoan eta Nafarroan ere presentzia bazuten, azken honetan, ORT eta MCEren atzetik zeuden arren.

«Klase independentzia» defendatzen zuten gero, ez zuten oposizioko batasunezko elkarteetako (*Junta*, *Plataforma* eta *Platajunta*) parte izan nahi.

CCOOren barrenean bizi izan zen eztabaidaren harira MCErekin batera CCOOren barrenean mantendu eta «Ezkerreko Korrante Sindikala» eratzea erabaki zuten.

1976ko kongresuan alderdiari izena aldatu zioten: ETA VI «abizena» erauzi eta, estatu mailako alderdiari LCR eta Hego Euskal Herriarentzako LKI izena jarritz.

LCRk Frente por la Unidad de Trabajadores- Langile Batasunaren alde Frentea (FUT-LBF) hautagaitza proposatu zuen 1977ko hauteskundeetarako, Acción Comunista (AC), OIC eta Partido Obrero de Unificación Marxista (POUM) alderdiekin batera, ezker erradikalen arteko hauteskunde-akordio bakarra izan zelarik. Alderdi txikiak zirenez gero, emaitzak oso apalak izan ziren eta eserlekurik eskuratetik urrun geratu ziren. 1978ko erreferendumean ezezko bozka eskatu zuen ezkerreko alderdietako bakarrenetako izan zen.

Kide galera handia izan zuten arren, 70. hamarkadaren bukaera gainditzea lortu zuten eta MCEk bezalaxe, ordutik aurrera mugimendu sozialetan murgiltze lana lehenetsi zuten: gazte eta ikasle mugimendua, intsumisoak, mugimendu feminista, NATOren aurkakoa...

1991ean, MCErekin bat egin zuen eta pare bat urtetara, Izquierda Alternativa alderdi sortu berria desegin zen. Kideetako gehienek Izquierda Unidara (IU, Ezker Batua) joatea erabaki zuten.

2.5. PCEml eta FRAP

Partido Comunista de España (marxista-leninista) (PCEml), 1964 urtearen bukaeran sortu zen PCEren zatiketa ezberdinen elkarketari esker.¹⁶ Barnealdeko eta kanpoaldeko (hau da, Espainiako eta atzerrian errefuxiatutako) militanteen babesaren zuzen. Batez ere unibertsitateetan lortu zuen eragina. Oposición Sindical Obrera (OSO) izeneko sindikatua bultzatu zuen. Hasieran maiosta txinazalea izan zen, baina gero Albaniaren alde lerratu zen. Planteamendu anticolonialak defendatzen zituen: «gerra herrikoi luzea»¹⁷ Espainiaren subiranotasun nazionala berreskuratzeko.

1971an fronte iraultzaile antifaxista eta patriotiko (Frente Revolucionario Antifascista y Patriótico, FRAP) bat eratzeke deia egin zuen, diktadura eraisteko fronte armatu zabala izan nahi zuen erakundea, baina funtsean PCEml alderdiko hurbileko zenbait taldek baino ez zuten babestu. Kideen artean Julio Álvarez del Vallo, gerra garaiko PSOEko kide izandakoak, parte hartu zuen. Borroka armatua, hasiera batean «autodefensa» modura ulertzen zuten (1973ko manifestazio batean polizia bat hil zuten labankadaz), baina ondotik beste motako ekintzak edo atentatuak egiten hasi ziren (beste hiru polizia hil zituzten).

Errepresioak oso gogor kolpatu zituen eta 1975ko irailean, ETAko bi kiderekin batera, frankismoak FRAPeko hiru kide fusilatu zituen.

Erregimen aldaketarekin batera kide galera handia izan zuen. Asociación Obrera Asambleísta (AOA) izeneko sindikatu bat eratu zuten eta 1978an FRAPen eginkizuna bertan bera geratzea erabaki zuten.

Alderdia 1981era arte legalizatu ez zutenez, Izquierda Republicana eta Convergencia Republicana de los Pueblos de España izeneko alderdien bidez egiten zituzten aurkezpen publikoak eta hauteskundeetarako hautagaitzak.

Hurrengo urteetan, zurruntasun ideologikoa zela eta beste korronteengandik zokoraturik geratu zen, 1992an disolbatu zen arte.

2.6. OCE-BR

Arestian esan bezala, 1968an eratu zen alderdi hau; oraindik sortze prozesuan ari zen PCEiren zatiketa batetik sortu zen. Hasiera Bandera Roja izena izan zuen.¹⁸ BRk leninista eta maoista izendatu zuen bere burua. Masa-borrokaren alde egin zuen eta ondorioz unibertsitateetan, irakaskuntzan, profesionalen eta katoliko aurrerakoen artean eragina izan zuen. Auzo mugimenduan oso azkar jokatu zuen eta beste alderdiek baino lehenago jakin zuen bertan eragiten.

Langile mugimenduan, 1971etik aurrera Sektorekako Langile Komisioak defendatu zituen.¹⁹ 1972 urtean Kataluniako oposizioko elkarte unitario nagusia zen Kataluniako Asanbladan sartu zen. Bereziki, Madril eta Valentzia alderantz zabaldu zen, eta horren ondorioz, «alderdi» modura eratu zen, OCE-BR (Organización Comunista de España-Bandera Roja) izena hartuz.

Alderdia sobera handia ez zen arren, garrantzia handikoa izan zaio zen, izan ere, bere kideetako asko intelektual jantziak eta profesionalak baitziren. Hauetariko askok denboraren joanarekin beste alderdi batzuetako (PSOE, PCE, PP...) zuzendari izatera ailegatu ziren.

1974an eztabaida bizia piztu zen alderdiaren barnean. Batzuek, Francoren aurkako oposizioaren batasuna lehenetsiz, egokiena PCE-PSUC alderdiaren parte izatea zeritzoten, besteek aldiz, alderdi berezitu modura mantendu nahi zuten eta haren izaera errepublikazalea defendatzen zuten. Alderdiak, bi zatiketa garrantzitsu izan zituen eta bere koadro eta kide ezagun asko PCE-PSUCen integratu ziren.

1975ko Lehendabiziko Kongresuan, alderdiaren izaera maoista berrindartu egin zen eta PCE-PSUCetik ezkerreko zeuden alderdiekin loturak bilatzean jarri zen lehentasuna.

Lehendabiziko hauteskundeetan boikota eskatu zuen eta hurrengo urteko Konstituzioari buruzko erreferendumean abstentzinoa.

Hego Euskal Herrian, alderdi honek eragin txikia izan zuen. Bere kideetako asko 70 hamarkadaren bukaeran Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailean (HASI) edo ETAn sartuko ziren. Euskadiko buruetako bat (Carlos Lucio) ETAn komando batek Guardia Zibilarekin edukitako segada batean hil egin zen.²⁰

80 hamarkadan PCErantz hurbilduz joan zen, 1989an bertan integratu zen arte.

2.7. OIC-EKE

Organización de Izquierda Comunista de España-ren (OICE) sorrera 1974an gertatu zen bi talderen elkarketan dago; batetik Katalunia aldeko Ciculos Obreros Comunistas (FOCetik zetorren taldexka bat) eta bestetik, batez ere Gipuzkoan presente zegoen, Nucleos Obreros Comunistas (zeina Herri Gaztedi izeneko talde

kristau batetik baitzetorren).²¹ Beste toki batzuetako jatorri kristauko taldeekaren bat ere gehitu zitzaion.

Alderdi txikia zen arren, Gipuzkoako Langile Komisioetako bigarren indarra izatera ailegatu ziren. Haien eragina Arabara zabaldu zuten, Gipuzkoako zenbait militante Gasteizko fabriketara lan egitera (eta bide batez alderdia zabaltzera) bidali zituztenean.

Korrante marxista ezberdinen eragina jaso zuten, eta batez ere kontsejismoaren korrante marxista defendatu zuten, Anton Pannekoek, Rosa Luxemburg edo Antonio Gramsci bezalako pentsalariak jarraituz. Haien eredu marxista beste batzuk baino heterodoxoagoa zen eta abangoardiazko alderdiaren ideia defendatzen zuten arren, iraultzaren protagonismoa langileen erakunde autonomoek eduki behar zutela uste zuten. Langileen auto-antolakuntzari garrantzi handia ematen zioten.

Katalunian Plataforma Anticapitalistas eta Comisiones Obreras Anticapitalistas izeneko sindikatuak bultzatu zituzten, beranduxeago CCOOren alde apustu egin zuten arte. 1977 euren izenetik «E»a kendu egin zuten. Euskal Herrian EKE (Ezker Komunista Erakunde) izena erabili zuten. 1977ko hauteskundeetan FUT-LBFarekin aurkeztu ziren. Zenbaitetan UNAI koalizio nafarrean ere parte hartu zuten.

Alderdia, marxismo-leninismo ortodoxoago baterantz hurbildu zenean, zatiketak gertatu ziren eta zenbait kidek alderdia utzi zuten. Azkenik, 1979an MC-EMK-rekin batu ziren.

3. Frankismoaren eraispenean izan zuten papera

Urte luzez, frankismo eta Trantsizio garaiko ikerketa historiografiko garrantzitsuenean diskurtso apaindua defendatu izan dute: besteak beste, prozesuan Juan Carlos erregeak eta Suarezek izan zuten paper zuzendaria eta elite txiki batzuen borondate erreformista zintzoa azpimarratzen ziren demokraziarako ezinbesteko giltza bezalaxe. Gainera, beste faktore batzuei garrantzi erabakigarria ematen zitzaion, hala nola, Espainian egondako aldaketa ekonomiko sakonak, «klase ertain» moderatuaren existentzia eta oposizioaren bigarren mailako papera. 78ko erregimenaren historiografia ofizialak kontakizun mitiko eta apaingarriz betea eraikirik zuten, Trantsizioa «baketsua», «eredugarria» eta beste herrialde batzuetara esportagarria zela argudiatuz.

Baina azkeneko urteetan, oposizioari bere papera behingoz aitortzen dioten lan akademikoak publikatzen ari dira, orain arte leporatu zitzaion oztopo edo traba izaera deuseztatuz. Aldi berean, kaleetan, 78ko erregimenaren aurkako iritzia handitzen joan da. Lan akademiko hauetan, Trantsizioaren izaera gatazkatsua onartu egin da. Carme Molinero, Pere Ysàs, Xavier Domènech, Pau Casanellas, Ferran Gallego edo bestelako ikertzaileek hala defendatzen dute behinik behin.²²

Diktadorea hil eta gero, Arias Navarro eta Fraga «Francorik gabeko frankismoa» bezala izendatu zen proiektua ezartzen saiatu ziren, esan nahi baita, diktadurari azaleko zenbait erreforma eginez diktadura bera mantentzea helburu zuen saiakera

burutu zuten. Saiakerak gutxi iraun zuen ordea, 1975ko abendutik 1976ko ekainera bitarte. Oposizioaren mobilizazio olatuak (Gasteizeko urtarriletik martxora bitartekoak bereziki) izan ziren frankismoaren legitimitatea higatu egin zutenak, saiakera erreformista kale eginaraziz. Eta are gehiago, Suarez gobernura ailegatu zenean, antifrankismoaren presioak neurri demokratizatzaileak hartzera behartu zuen, nahiz eta hura ere bere aurrekoak bezain frankista zen.

Kontakizun ofizialak urte luzez esan duenaren aurka, langile mugimendua izan zen diktaduraren aurka indar eta presio gehien egin zuena, eta frankismoa eraisteko erantzukizun handiena berari zor zaio.

Orokorrean, hasieran, greba eta mobilizazioak oso era lokalean gertatzen ziren, langileen hurbileko arazo eta aldarrikapen laboralei loturik. Baina, elkartasunari dei eginenez, eta errepresioa zela eta, langile mugimendua politizatu egin zen. Langileen aldarrikapenak lantegitik kalera atera ziren. Greba politikoak egiten hasi zirenean parte hartzaileen aldarrikapenak aldatu ziren (errepresioaren aurka, amnistiaren alde, askatasun demokratikoen eske...) eta langile mugimendua mobilizazioen protagonista nagusia izaten jarraitu zuen. Langileek erregimenaren erantzun ahalmena gainditu ahal izan zuten eta zenbaitetan autoritateek espazio publikoaren kontrola galdu zuten. Dударik gabe «Francorik gabeko frankismoa» izeneko proiektuaren ezarpenak kale egiteko faktore inportanteena izan zen.

Ezker iraultzaileaz, bere jarduna langile mugimenduan nabaritu ez zela esan izan da, mugimenduan zuen ezarpen ahulagatik (PCE nagusi baitzen) eta batez ere ikasle burges txikiak izateagatik. Errealitateetik urrun zegoen muturreko erradikalasuna eta ezkerkeria leporatu zitzaizkien. Baina, egia esateko, Hego Euskal Herriko Langile Komizioetan nagusi ziren, eta langileak antolatzeke, erradikalizatzeko eta borrokara bideratzeko gauza zirela argi geratu da.

Euskal-nafar eremuan, frankismoko azken urteetan greba ugari egon zen, Espainiako beste toki batzuetako konfliktibitate eta erradikalasun altuagoa izan zutenak. Euskal herrialdeak izan ziren ezker erradikalak ezarpen zabalena eta militante gehien zuen tokia, eta gainera, zenbait alderdiren sorlekua izan zen. Ikerketa batzuek aparteko erradikalasunaren eta ezker erradikalaren arteko erlazio kausala egon zitekeela proposatu dute.²³

Arestian esan bezala, ezker erradikaleko kide gehienek langile mugimenduaren barrenetik egin zuten bultza frankismoaren aurka. Frankismoa eta kapitalismoa aldi berean eraitsi nahi zituzten. Baina kapitalismoa eta frankismoaren arteko lotura desegin zenean, ezker iraultzailearen helburuak urrundu egin ziren eta espero zuten iraultza hura ez zen sekula ailegatu. Oposizioak diktadura eraisteko ahalmena izan zuen arren, ez zen bere proiektu propioa ezartzeko gauza izan.

4. Trantsizioa. Diktadura eta gero zer?

Diktadorea hil eta gero, «hausturaren» eta «erreformaren» arteko eztabaida piztu zen. PSOE zein PCEn buruzagientzako diktaduraren bukaera askatasun demo-

kratikoak bermatzen zituen erregimen batekin alderatzen zuten eta hori lortzeko gobernuarekin akordioak eta erreformak adosteko prest zeuden.

Ezker erradikaleko alderdiek, aldiz, «hausturaren» aldeko apustua egin zuten. Haienezako «hausturak» estatu frankistaren eta errepresio aparatuen desegitean, amnistia osoa eskuratzean, errepublikari buruzko erreferenduma egitean eta autodeterminazio eskubidea onartzean zetzan. Ezker iraultzailea tarteko pausuak gobernuarekin negoziatzeko prest zegoen ere, baina haien ikuspuntutik negoziazioak eta akordioak hausturarantz abiatzeko bide izan behar zuten, sekula ez hura geldiarazteko tresna.

Haustura desiratu behartzeko herriaren presioa indartu eta mobilizazioak ugartu behar zirela uste zuten. Ezker erradikalak argi erakutsi zuen zenbait eskualde eta probintzian (Euskal Lurraldeak, Kataluniako Vallès eskualdea, Kanariar Irlak...) mobilizazio arrakastatsuek burutzeko gauza zirela, baina haustura gerta zedin mobilizazioak Espainia osora orokortu behar ziren, eta horretarako indarra PCEk baino ez zuen. Ezker Iraultzaileak PCEri mobilizazioak orokortu zitzaizkion, baina Carrilloren alderdiak ez zuen nahi izan. PCEren ustez indar korrelazioa ez zen haustura behartzeko nahikoa eta mobilizazioen ugaltzeak armadaren sektore erreakzionarioenen haserrea piztu eta diktaduraren egoerara atzera egiteko baino ez zuela balioko iritzia zuen. Frankismoko elite zaharrak aldaketa erradikalaren aldeko edozein zantzu indarrez oztopatzeko prest omen zeuden. Ondorioz, Gasteizko sarraskiaren eta Arias Navaroren gobernuaren erorketaren ondotik, PCEk gobernuarekin eta alderdi eskuindarrekin akordioa bilatu zuen, demokraziaren bidea sakontzeko pausuak babesteko asmoz. Akordioetan parte hartzearen ordainetan mobilizazioak moteldu zituen Carrilloren alderdiak. Ezker erradikala bazterturik eta bakarrik geratu zen hausturaren defentsan.²⁴

Handik gutxira, lehendabiziko hauteskunde demokratikoak ospatu ziren eta ezker erradikala bere sektarismo alderdikoiagatik bereizirik aurkeztu zen. Gainera, PCEren ezkerrean zeuden alderdi gehienak ilegalak ziren oraindik. Aparteko oztopon honen ondorioz, izen «independentiak» zituzten hautagaitzetan aurkeztu behar izan zuten, haien benetako siglak erabili gabe. Hauteskunde horietan, Espainiako hautesleen gehiengoak moderazioaren alde bozkatu zuen (UCD, PSOE eta Hego Euskal Herrian EAJ). Espainia mailan ezker erradikalaren hautagaitzek 350.000 bototik gora eskuratu zituzten, hau da, hautesleen %2-3 inguruk eman zieten botoa. Osotara aukera komunisten –PCE eta ezker iraultzailearen hautagaitzen baturaren– %15 izan ziren. Zenbait tokitan ordea, Hego Euskal Herrian esate baterako, ezker erradikala osatzen zuten alderdien osotasunak PCE gainditzea lortu zuen. Nafarroan eta Gipuzkoan botoen %17 eta %11 zakuratu zuten hurrenez hurren. Osotara, bi diputatu (Gipuzkoan EEko Francisco Letamendia eta Bartzelonan Esquerria de Catalunya Heribert Barrera) eta bi senatari (EEko Juan Mari Bandrés eta ezkerreko independentista zen Lluís María Xirinacs) baino ez zituzten lortu alderdi erradikalek bultzatutako hautagaitzek.

Hurrengo urteetan, politikaren jokia kaleetatik parlamentura pasatu zen eta alderdi antikapitalistak jokozen kanpo geratu ziren. Ezker erradikala ez zen porrot hura egoki kudeatzeko gauza izan eta 1979ko hauteskundeetan babes zabalagoa lortu zuen arren (830.000 bototik gora, %4,7), ia eserlekurik gabe geratu ziren berriz ere (Unión del Pueblo Canarioko Sagaseta diputatua izan zen bakarra).

Gainera, erregimen aldaketa bizi izan zen urte horietan, ekonomia krisi latz batek astindu egin zituen Mendebaldeko Europa eta Espainia. Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik zetorren kapitalismoaren Urrezko Aroa deituriko hazkunde garaia bukatu zen eta horrek klase borrokaren indar korrelazioa aldatu egin zuen. Moncloako Ituna izan zen Espainiako kapitalismoaren metaketa eredu berria, neoliberala, ireki zuen ataria. Ezker erradikaleko alderdiek, egoera hartan, mobilizazioaren bidez langileen interesak defendatzen saiatu ziren. Langabeen Martxa bezalako mobilizazioak edo oso egingarriak eta batere erradikalak ez ziren neurri sozialdemokratak proposatu zituzten. Langileen artean, gobernuaren neurrien aurkako iritzia zegoen arren, ez zuten haiekin konektatzea lortu eta proposamenek ez zuten arrakastarik izan.²⁵

Euskal lurraldeetan, «euskal gatazka» zela eta, erreformak ezartzeko zailtasun gehiago izan zituen eta alderdi erradikalek hobe jasan zuten krisia, hausturaren aldeko oinarri sozialaren lidergoa galdu zuten arren. Frankismo garaian ezker iraultzaileak langileak mobilizatzeko ahalmen handia zuen arren, 70 hamarkadako azken urteetan ezker abertzaleak eta Herri Batasunaren inguruan bildutako mugimendu abertzale erradikalak lekukoa hartu zuen.

Alderdien krisi politikoa gutxi balitz, beste faktore batzuek haien noraeza sakondu zuten. Nazioarteko mugimendu komunista ere bidegurutzeko zail batean zegoen eta dagoeneko krisi zantzuak azaleratzen hasia zen. 68ko protestaldietatik sortutako olatu iraultzailearen indarra apalki itzaliz joan zen eta Europa mendebaldean aukera iraultzailea desagertu egin zen.

PCE ere ez zen aise atera egoera hartatik, oposizio antifrankistako militante gehien zituen, antolaketa bikainena zuen eta mobilizazio sozial handiak egiteko gaitasuna zeukan alderdia zen. Baina urte gutxitan babes sozial izugarria galdu eta hauteskundeetan emaitza oso apalak lortu zituen.

Gainera, otsailaren 23ko estatu kolpeak oso eragin negatiboa izan zuen. Inoiz hausturaren aldeko aukerarik egon bazen, estatu kolpea eta gero, militanteetako askok iraultzarengan konfiantza galdurik eta mehatxu kolpistak kikildurik, borroka uzteko erabakia hartu zuten. Beste askok, PCE edo PSOEren jardun instituzionalean jarri zuten esperantza eta kaleko edo lantegiko militantzia utzi zuten.

Trantsizioa, 1982ko hauteskundeekin bukatu zen. PSOEek erraztasun handiz irabazi zituen hauteskundeak eta gehiengo absolutua eskuratu zuen, langileen boto asko jaso zituelako. Felipe Gonzalezen garaian, krisiaren kostua langileen gain erori zen, ezkerreko gobernu bat zen arren langileen kalterako neurriak hartu zirelako,

industria birmoldaketa esaterako. Herrialdea modernizatzeko eta Europako Elkarrekin Ekonomikoa sartzeko eginahal ekonomiko handia egin behar zela argudiatuz, soberakinaren parte bat soldatetatik kapitalen errentetara pasarazteko mekanismoak eratu ziren eta soldaten negoziazio markoa aldatu zen, laneskua merkatu zuena. Ondorioz, gizartean elkartasun gutxiago, langile klasearen zatiketa eta sindikatuen ahultzea gertatu ziren. Horrek enpresariak presio ahalmena handitu zuen eta langileen egoera okertu. Azken finean, sistema kapitalistak legitimitatea irabazi zuen eta neoliberalismoaren garaia abiatu zen.

Politika ekonomiko hauek guztiak sindikatu nagusien (UGT eta CCOOren) konplizitatearekin egin ziren. Hitzarmen sozialaren garaia zen eta erreforma hauek guztiak aurrera eramateko eta bake soziala bermatzeko akordio ugari sinatu ziren.

Ezberdintasun ekonomikoak handitu ziren eta Alderdi Sozialistak bozka eman zion langile klasearen aurkako neurriak egin zituen. Kapitalaren interesak indartu eta gizarte justuago eta solidarioago bati atea itxi zitzaion.²⁶

Arestian esan bezala, garai hartara ailegatu ziren alderdi antikapitalista bakarretakoak MC eta LCR izan ziren, baina ordurako ez ziren estatua indarrez hartzeko prest zeuden alderdi leninistak, mugimendu sozial berriak (feminismo, ekologismo, homosexualen askapena, pazifismo eta antimilitarismoa...) sustatzean trebatuak zeuden plataformak baizik. Besteak beste, NATOren inguruko 1986ko erreferendumaren kanpainen ezezkoaren aldeko lan handia egin zuten eta oihartzun dezente lortu zuten.

5. Zer geratu da hartaz guztiaz?

Sobietar Batasuna erori eta gero, kapitalismoa garaile atera zen. «Historiaren bukaera» aldarrikatu eta merkatu ekonomia eta demokrazia burges-liberala bidegarria den sistema politiko-ekonomiko bakar bezala izendatu zen. Hartara, edozein sistema alternatibo gertaezina den ameskeria modura irudikatzen zenez, ezker iraultzaileak aldarrikatzen zituen proiektu politikoak urrundu eta alderdi gehienak desagertu ziren.

Baina haien eginahala ez zen hutsala izan. Diktadura eraisteko haien ekarpena ezin bestekoa izan zela ezin dezakegu ahaztu. Gainera, ezker iraultzailea zenbait ideia eta aldarrikapenen aitzindari izan zen, besteak beste, feminismoan, ekologismoan, homosexualen askapenean, preso sozialen borroketan, elbarrien eskaeretan edo pazifismo eta antimilitarismoa bezalako mugimenduetan. Helburu politiko (sozialismoaren ezarpena) lortu ez zuten arren, gizarte arloko eskubide eta aurrerapen asko garaiko borrokalarien ekinbide gogorrari zor diegu. Bestalde, pertsonak ere geratu ziren. Kideetako askok gizartea eraldatzeko beste proiektu batzuetan borrokan jarraitu zuten, eta gaur egungo mugimendu sozial eta aldarrikatzaileetan ezker muturreko alderdietako militante ohi ugari dago.

NOTAS

1. «Ezker iraultzaile» izenpean batzuek alderdi marxistak, libertario-anarkistak, autonomoak, kristau antikapitalitak eta abertzaleak barnebiltzen dituzte. Lan honetan, talde nagusienei eginen diegu erreferentzia, ezker marxista ez-abertzaleari alegia.
2. PSUC PCERen Kataluniako alderdi anaitua zen.
3. Ezker iraultzailearen gorenezko momentuko (1977ko), gutxi gora beherako datua, Albert Planasek, kalkulatu. Alderdiek beraiek 50.000 bat kide kalkulatu zituzten, baina zenbateko puztuegia daitekeela dirudi. Poliziak, aldiz, 30.000 bat kalkulatu zituen. (Planas I Serra, 2011, 609-620)
4. Laiz Castro, 1995; Roca, 1994.
5. Wilhelmi Casanova, 2016, <http://transicionyruptura.info/>, <https://congresotransicion2017.wordpress.com/>.
6. Molinero, Ysàs, 1998; 1-94.
7. Frente de Liberación Popular (FLP), felipe modura ezagututako fronte bat zen. Front Obrer de Catalunya (FOC) eta Eusko Sozialisten Batasuna (ESBA) frontearen kataluniar eta euskal adarrak ziren.
8. Pérez Serrano, 2013; 249-291.
9. Hemen aipatzen direnez gain, beste alderdi ugari ere izan ziren: PCEr-GRAPO, Acción Comunista, Octubre, Liberación, mugimendu autonomo eta libertarioak, ezker independentista, ezkerreko elkarte kristauak ... Zati honetarako Ricard Martinezen lana biziki lagungarria izan da: Martínez I Muntada, 2013.
10. Martín Ramos, 2011; Hainbat egile, 2010, <http://www.pte-jgre.com/>
11. Txinozalea, edo prochino erdaraz, garaiko hizkera informal eta militantean maoista esateko erabiltzen zen.
12. Assemblée de Catalunya (Kataluniako Asanblada), 1971ean sortutako oposiziozko batasunezko plataforma bat izan zen.
13. De Miguel Sáenz, 1992; 739-755; Remón Berrade, 1995; 259-280; Treglia, 2013; 47-71; <http://www.ort-ujm.es/main/>
14. Cucó I Giner, 2008; 73-96; Kortazar Billelabeitia, 2012b; 1079-1109; Kortazar Billelabeitia, 2012b, Fernández Rincón, 2016; Satrustegi, 2016.
15. Caussà, Martínez I Muntada, 2014; <http://www.historialcr.info/>
16. Martínez I Muntada, 2013.
17. Gaztelera «Guerra popular prolongada» deitu izan den kontzeptu maoistari egiten dio erreferentzia.
18. Martínez I Muntada, 2013.
19. CCOO de Sectores.
20. <http://blocs.mesvilaweb.cat/peremerono/?p=175444>
21. Joel Sans jauna OICri buruzko doktorego bat egiten ari da, aurki burutuko duena. (Sans Molas, a) (Sans Molas, b)
22. Escribano Riera, Casanellas Peñalver, 2012; 101-121.
23. Joel Sansek Daniel Escribanoren lan argitaratu gabe batean hipotesi hau proposatzen dela esaten du. (Sans Molas, 2013; 283-287)
24. Wilhelmi Casanova, 2016; 123-166 eta 362-370.
25. Wilhelmi Casanova, 2016; 226-240.
26. Etxezarreta, 1991; Satrustegi, 2015.

BIBLIOGRAFÍA

- CAUSSÀ, Martí. MARTÍNEZ I MUNTADA, Ricard (eds.), (2014): *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria (1970-1991)*. Torrejón de Ardoz: La Oveja Roja.
- CUCÓ I GINER, Josepa (2008): «Recuperando una memoria en la penumbra: el Movimiento Comunista y las transformaciones de la extrema izquierda español», in *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 20. zbk., Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 73-96.
- DE MIGUEL SÁENZ, Javier (1992): «La ORT en Navarra. Orígenes y desarrollo», in *Príncipe de Viana. Anejo*, 16 zbk, Iruñea: Institución Príncipe de Viana, 739-755.

- ESCRIBANO RIERA, Daniel. CASANELLAS PEÑALVER, Pau (2012): «La precipitación del cambio político (1974-1977). Una mirada desde el País Vasco», in *Historia social*, 73. zbk.,: Fundación Instituto de Historia Social, 101-121.
- ETXEZARRETA, Miren (koord.), (1991): *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*. Madril: Fuhem, Bartzelona: Icaria.
- FERNÁNDEZ RINCÓN, Javier (2016): «El Origen del Movimiento Comunista de España. Evolución, formación y extensión al ámbito estatal», IX Encuentro de Investigadores del Franquismo de Granada. <http://transicionruptura.info/wp-content/uploads/2016/02/05-Javier-FERNA%CC%81NDEZ-RINCO%CC%81N.pdf> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- HAINBAT EGILE (2010): *PTE, la lucha por la ruptura democrática en la Transición*, Madril: EDILESA.
- KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon (2012, a): «Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia», en: *Vasconia: Cuadernos de historia - geografía*, 38. zbk.: Eusko Ikaskuntza, 1079-1109.
- KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon (2012, b): El «Movimiento Comunista de Euskadi y la Transición en el País Vasco (1975-1980).», en GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Alberto (coord.) *No es país para jóvenes* (actas del Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea, 2009, Granada), Instituto Valentín de Foronda.
- LAIZ CASTRO, Consuelo (1995): *La lucha final: los partidos de la izquierda radical durante la transición española*, Madril: Los libros de Catarata.
- MARTÍN RAMOS, José Luís (koord.), (2011): *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, Bartzelona: El Viejo Topo.
- MARTÍNEZ I MUNTADA, Ricard (2013): «La izquierda revolucionaria de ámbito estatal, de los sesenta a los ochenta: una brevísima historia», in: *Viento Sur*, 126. zenbakia, 2013ko urtarrilean. https://vientosur.info/IMG/pdf/VS126_R_Martinez_Izq_revolucionaria_sesenta_a_ochenta.pdf 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- MOLINERO, Carme. YSÀS, Pere (1998): *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España Franquista*, Madril: Siglo Veintiuno Ediciones.
- PÉREZ SERRANO, Julio (2013): «Orto y ocaso de la izquierda revolucionaria en España (1959-1994)» in: QUIROSA-CHEYROUZE, Rafael: *Los partidos en la Transición: las organizaciones políticas en la construcción de la democracia española*, Madril: Biblioteca Nueva, 249-291.
- PLANAS I SERRA, Albert (2011): «La izquierda marxista radical en la Transición: Catalunya, 1968-1980», in: QUIROSA-CHEYROUZE, Rafael. NAVARRO PÉREZ, Luís Carlos. FERNÁNDEZ AMADOR, Mónica (koord.): *V Congreso internacional. Historia de la Transición en España. Las organizaciones políticas* Almería: Universidad de Almería; 609-620.
- REMÓN BERRADE, Gaudencio (1995): «La Organización Revolucionaria De Trabajadores (ORT) ante la Junta Democrática y la Plataforma De Convergencia», in *Estudios de Ciencias Sociales*, 8. zbk., Iruñea: UNED, Centro Asociado de Navarra; 259-280.
- ROCA, José Manuel (ed.) (1994): *El proyecto radical. Auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*. Madril: Los libros de la Catarata.
- SANS MOLAS, Joel (2011): «Entre las instituciones y la movilización: la crisis de la izquierda radical durante la transición», in QUIROSE-CHEYROUZE, Rafael. NAVARRO PÉREZ, Luís Carlos. FERNÁNDEZ AMADOR, Mónica (coords.): *V Congreso internacional. Historia de la Transición en España. Las organizaciones políticas*, Almería: Universidad de Almería; 649-665.

- SANS MOLAS, Joel (2013): «L'esquerra revolucionària i el seu paper en la mobilització social i el canvi polític dels anys 70: Estat de la qüestió i alguns apunts per al seu estudi.» In BELLVER LOIZAGA, Vincent. D'AMARO, Francesco. MOLINA PUERTOS, Isabel. RAMOS TOLOSA, Jorge (coords.) *Otras voces, otros ámbitos: Los sujetos y su entorno. Nuevas perspectivas de la historia sociocultural*, Valencia: Universitat de Valencia/Asociación de Historia Contemporánea; 283-287.
- SANS MOLAS, Joel (a): *L'Organització d'Esquerra Comunista en el moviment obrer: les Plataformes i Comissions Obreres Anticapitalistes (1971-1977)*, https://www.academia.edu/6141544/LOrganizaci%C3%B3_dEsquerra_Comunista_en_el_moviment_obrer_les_Plataformes_i_Comissions_Obreres_Anticapitalistes_1971-1977_2017ko urtarrilean kontsultatua.
- SANS MOLAS, Joel (b): *Militancias revolucionarias en los años 60 y 70s: el caso de la Organización de Izquierda Comunista*, https://www.academia.edu/28935892/Militancias_revolucionarias_en_los_a%C3%B1os_60_y_70s_el_caso_de_la_Organizaci%C3%B3n_de_Izquierda_Comunista?auto=download 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- SATRUSTEGI, Imanol (2016): *La izquierda revolucionaria vasca bajo el franquismo: el ejemplo del MCE*. Carme Molinerok zuzendutako Master Bukaerako Lana, 2016ko irailean, argitaratu gabea.
- SATRUSTEGI, Imanol (2015): *Espainia Bidegurutzean: Krisi Ekonomikoa Eta Erreforma Politikoa 1973-1986*. Xabier Lamikizek zuzendutako Gradu Bukaerako Lana. 2015eko uztailean. Argitaratu gabea.
- TREGLIA, Emanuelle (2013): «Izquierda comunista y cambio político: el caso de la ORT» in: *Ayer*, 92. zbk., Madril: Asociación de Historia Contemporánea, Marcial Pons-Ediciones de Historia; 47-71.
- WILHELMI CASANOVA, Gonzalo (2016): *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición (1975-1982)*, Madril: Siglo XXI.

Web orrialdeak:

- <http://blocs.mesvilaweb.cat/peremerono/?p=175444> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- <http://transicionyruptura.info/> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- <http://www.historialcr.info/> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- <http://www.ort-ujm.es/main/> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- <http://www.pte-jgre.com/> 2017ko urtarrilean kontsultatua.
- <https://congresotransicion2017.wordpress.com/> 2017ko urtarrilean kontsultatua

LABURPENA

Ezker iraultzailea, frankismoaren aurkako oposizioko bigarren indarra zen, beti ere PCE-PSUCen atzetik. Baina bere garaian garrantzia handia bazuen ere, ezker iraultzailea desagertu egin zen diktadura ondoko urteetan eta XXI mendearen hasieran oso gutxi geratu da hartaz guztiaz. Lan honen helburua sektore politiko haren ibilbide historikoaren laburpena egitea da.

Hitz gakoak: Ezker iraultzailea. Antifrankismoa. Langile borroka. Espainia.

RESUMEN

La izquierda revolucionaria fue la segunda fuerza de la oposición al franquismo tras el PCE-PSUC. Pero a pesar de la importancia que tuvo en su época, la izquierda revolucionaria prácticamente desapareció, y en los albores del siglo XXI muy poco ha quedado de aquello. El objetivo de este estudio es realizar un repaso del recorrido histórico de este sector político.

Palabras clave: Izquierda revolucionaria. Antifranquismo. Lucha obrera. España.

ABSTRACT

The far-left parties were the second political force of the opposition against the Franco's dictatorship, just behind the PCE-PSUC. However, in spite of the evident importance they had, far-left parties almost disappeared after the dictatorship came to an end, and in the early 21st century their trace has gone unnoticed. The objective of this historical research is to summarize the history of this political movement.

Key words: Far-left. Opposition to Franco. Workers struggle. Spain